

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Bermeoko Udala**

**Bermeon, 2025. urtean gidabaimena euskaraz prestatzeko eta ateratzeko dirulaguntzaren deialdia. BDNS (Identif.): 838077.**

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b) eta 20.8.a) artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalean aurki daiteke. Diru-laguntzak:

(<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/838077>).

Laburpena: 2025eko maiatzaren 26ko 2025 000002952 zenbakidun Alkatetza Dekretuaren erabakia, Gidabaimena euskaraz prestatu eta ateratzeko Bermeoko biztanleentzako 2025. urterako dirulaguntzen deialdia onartzen eta zabaltzen duena. BDNS (Identif.): 838077.

**Lehenengoa. — Eskatzaileak**

Bermeon erroldatuta egon eta B mailako gidabaimena ateratzeko azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzen duten pertsonak.

**Bigarrena**

Diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak honako hauek dira:

Gidabaimena prestatzeko azterketa teorikoa euskaraz egin eta gainditzea.

Baldintzak betetzen dituzten eskatzaileek 150 euroko dirulaguntza jasoko dute.

**Hirugarrena. — Oinarri Arautzaileak**

Deialdi hau Bermeoko Udalaren 2025eko aurrekontuetan jasota dago eta 2023ko maiatzaren 12an Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2023ko martxoaren 31ko Osoko Bilkurako 7. puntuan onartutako 2023-2025 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan. Oinarri horiek, deialdi hau eta eredu normalizatuak Bermeoko Udalaren Webgunetik jaitsi ahal izango dira:

<https://www.bermeo.eus/1304.html>

**Laugarrena**

Zenbatekoa, guztira 300 euro, 01400-33540-4800102 aurrekontu-partidaren kontura.

**Bosgarrena**

Eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, hain zuzen urrian.

**Seigarrena. — Balorazio irizpide zehatzak**

- Bermeon erroldatuta egotea
- Gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz prestatzea
- B mailako gidabaimenaren azterketa teorikoa euskaraz eginda eta gaindituta izatea eskaerak aurkezteko epea amaitu baino lehen
- Bermeoko Udalarekin, Ogasunarekin eta Gizarte Segurantzarekin zorrik ez izatea Bermeon, 2025eko ekainaren 6an. — Alkatea, Nadia Nemeh Shomaly